

ZER DEZU, UMETXOA?

Txomin Azpiroz De Pedro

Doinua: *Txuringaingo Errota*

1.- Zer dezu, umetxoa?

Kontatu aitari/amari.

Zerk kentzen dio loa
gure txikiari?

*Beldurra ematen dit
lotara joateak
eta bakar bakarrik
begiak ixteak.*

2.- Begiak itxi eta

has zaitez pentsatzen

mundu hontan ze gauza
zaizkizun gustatzen.

*Eta zer egingo det
kentzeko ikara
armairutik mamu bat
ateratzen bada?*

3.- Hor mamurik dagonik

maitea ez uste

mamuek ere gaeuz

lo egiten dute!

*Mamurik ez omen da...
bai baina agian,
munstro bat egon leike
ohiaren azpian!*

4.- Jarr'iozu izen bat

Jon edo Arrate...

eta lagun haundiak

egingo zerate!

*Munstroaren orde z zer
egingo dut, berriz,
lo nagola lapur bat
etorriko balitz?*

5.- Lapurrengatik behintzat

ez zaitez beldurtu

ametsak ezin ditu

inortxok lapurtu.

*Nahiz etxetik lapurrak
ez eraman ezer
beldurrak jota pixa
egiten badet zer?*

6.- Inoiz pasako zaizu

ez lotsatu, hara:

maindireak aldatu

ta berriz lotara!

*Ilunpetan ordea
ezin det lo egin;
beldurtzen naiz ikusten
ez diren gauzekin.*

7.- Ilun baldin badago

ez ahaztu sekula

barrean bakoitzak

argi bat degula.

*Hotsek izutzen naute,
ordea, gauean,
dena entzuten baita
isiltasunean.*

8.- Isil-isilik gauden

momentutxo hortan

hasten dira hizketan

beldurrak askotan.

Isilarazi eta

kanporatzekotan, (bis)

sendagairik onena

hastea bertsotan!

Bakean utzi baietz,

hurrengoan, lotan!